

1 EAQUALS

EAQUALS-ek, hizkuntzaren ikasketan dituzun beharrak betetzeko, kalitate handi eta trinkoko irizpide bat ziurtatzen du. EAQUALS-eko Estatutuan eta baita Kodean ere azaldutako guztia, hiru urtetik behin egiten diren ikuskapen zorrotzek egiaztatzen dute, eta EAQUALS-eko partaide izatea, eskola batek bermeak denak guztiz errespetatu direla frogatu dezakeenean bakarrik ziurtatzen da. Praktikan, EAQUALS kalitate zigilu bat da ingelesaren ikasketan, merkataritzan ISO eta Aenor diren bezala. EAQUALS-en ezagutzak, kalitatearekin dugun konpromisoan berrespen bat adierazi nahi du.


2 Ikastaroak

Lacunza-ihko ikasle gazteentzat diren ikastaroak, gaur egungo ohizko ingelesean nola komunikatu zaitezkeen irakasteko pentsatuta daude. Gure ikasketa programan, komunikazioaren alderdi guztietan jartzen dugu arreta baina bereziki mintzamenean eta entzumenean. Irakurmena eta idazmena ikaslearen adina eta gaitasunaren arabera sartzen ditugu.

Erabiltzen ditugun metodoak ingelesa modu dibertigarri batean ikasi dezazun eginak daude, ingelesa ikasteko duzun ahalmena erabat areagotuz. Ikastaroan zehar jarduera mota ugarietan hartuko duzu parte, talde osoarekin lan eginez, edo binaka, edo talde txikitik edo bakarka. Ingelesa ikastea oso dibertigarria izan daiteke baina aldi berean, ahal duzun guztia egin behar duzu kontzentratzeko eta arretaz entzuteko. Zure ikasketan jarrera aktiboa edukiko duzula eta zure ikaskideekin elkarlanean arituko zarela espero dugu.

3 Zure aurrerapena

Klasera sarritan bazatoz, eskoletan biziki parte hartzen baduzu eta zure irakasleak bidalitako lan guztiak egiten badituzu, zure ikastaroan, nabarmen aurreratuko duzu. Zure irakasleak eskolan egindako lanak kontuan edukiko ditu eta noizbehinka, aurrerapen test-ak egingo ditu. Honekin lortu nahi duguna, zure ezaguerak aldizka errepasatzera anima zaitezten da eta bide batez, zure irakasleak zehatzago jakin dezan



Lacunza mailen sistema, Europako Kontseiluokorekin (hizkuntzaren ikasketarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako europar erreferentzi Markua) bat dator. Honek, ikasleek hizkuntza bat ikasterakoan zuzenki komunikatzeko behar duten ezaguera eta gaitasunak zehazki deskribatzen ditu.

zure aurrerapen maila zein den.

Hiruhileko bakoitza amaitzerakoan (abendua, martxoa eta ekaina), zure aurrerapena, parte-hartzea eta portaera neurtzen dituen ebaluaketa-txosten bat jasoko duzu.

Nahiz eta derrigorrezkoa ez izan, oso gomendagarria da, beraien aurrerapena ezagutzeko, ikasleek Cambridge Young Learners English Tests (haurrentzat azterketak) egitea, 7tik 12 urte bitarteko haurrentzat bereziki eginak daude eta hiru mailetan sailkatzen dira. Maila altuena -“Flyers”-, gutxi gorabehera KET azterketako mailaren baliokidea da, honela, Young Learners English Tests-ek, Cambridge ESOL-eko azterketa Nagusien Multzorako bidea erraztu dezaketelarik.

4 Zure eskola eta ikasketei probetxurik handiena ateratzeko:

1. Eskolara beti puntu-puntu edo minutu batzuk lehenago etorri. Ikasle bat berandu iristeak klase guztiari egiten dio kalte. Gogoratu eskolara zure liburuak, koadernoak eta kutxatila ekarri behar dituzula.
2. Arreta jarri. Zure irakasle eta ikaskideei entzun, batez ere irakaslea argibideak ematen edo ikasgaia azaltzen ari denean, edo beste ikasleek beraien kezka azaltzen dituztenean. Irakasleak zure lanak antolatzen lagunduko dizu eskolei etekina ateratzeko.
3. Irakasleari ez moztu. Itxaron, berak zer egin behar duzun azaldu arte. Ondoren, ez baduzu zerbait ulertzen, irakasleari galdetu.
4. Eskolan beti ingelesa erabiltzen eta ahalik eta gehien parte harzen saiatu zaitez. Eskola amaitzean galdetu zure buruari: zein gauza berri esan ditzaket orain ingelesez?
5. Etorri eskola guztietara. Ez bazara eskolara etortzen, zure gurasoekin hitz egingo dugu. Eskolen bat galtzen baduzu, bertan emandako materialeak ikasteaz arduratu zaitez.
6. Esaiouzu irakasleari zuretzat gai interesgarrienak zeintzuk diren, horrela berak, eskolen plangintza egiterakoan kontuan eduki ahal izango ditu.
7. Zure etxeko lanak arreta handienaz egin. Etxean ikasten ari zarenean, eskolan egindako aurrerapenak errepasatu. Zerbait ez duzula ondo ulertu konturatzeko bazara, eskatu zure irakasleari argitzeko, bera zu laguntzeko dago. Irakasleak etxeko lanak bidaliko dizkizu eta zuk egin beharko dituzu. Izan ere, etxeko lanak seriozki hartzen dituzten ikasleek azkarrago aurreratzen dute. Aldiz, etxeko lanak egiten ez dituzten ikasleek edo inongo arretarik gabe egiten dituztenek, sarritan arazoak edukitzen dituzte eta gainera ikasturte osoa galdu dezakete.
8. Liburuak ingelesez irakurri. Galdetu zure irakasleari zein liburu irakurri ditzakezun zure mailarekin.

5 Arazo, azalpen eta iradokizunak

Arazo administratiboren bat edukiko bazenu, esaiouzu edozein idazkariri edo joan zuzenean Ikasketa Zuzendariarengana.

Zure eskolan ez bazaude gustura, bertako lana gogorra delako edo zerbait gogaikarria dela iruditzen zaizulako, ez geratu isilik, esaiouzu irakasleari. Bera da zure arazoari irtenbide bat emango dion pertsonarik proposena, eta poz-poz egongo da zurekin hitz egiteaz. Klaseko arazo zehatzentzat, posible da bakarkako tutoretza bat antolatzea klaseko orduetatik kanpo. Nahiago baduzu, zuzenean Ikasketa Zuzendariarengana joan zaitezke.

Akademiari buruz egin nahi diguzun edozein azalpen entzuteko gogotsu gaude. Beraz, arren, ez izan zalantzarik esan nahi diguzuna esateko. Akademiari buruz egin nahi diguzun edozein iradokizun uzteko,

iradokizun-kaxa bat aurkituko duzu zentro bakoitzaren bulegoan.

6 Akademiako arauak

Akademian, hizkuntza bat ikasteko biltzen diren pertsonen artean giro egokia lortzeko, komenigarriak diren oinarrizko arau minimo batzuk daude.

Arau garrantzitsuenak, zentroa erabiltzen duten beste pertsonak errespetatzea da. Hau da, eskolara sartzera zoazenean edo bertatik irtetean isilik ibili behar duzu. Baita zure eskola hasteko zain zaudenean ere. Eskolan ezin duzu jan edo edan. Eraikina eta bertako altzariak zaintzea ere garrantzitsua da eta baita akademia garbirik edukitzea laguntzea ere. Horretarako, zakarrak paperontzira bota beharko dituzu.

Ikasleek klasean ere begirunez jokatzeko espero dugu. Hau da, irakasleak agindutakoa egitea, ingelesez soilik hitz egitea, irakasleari eta beste irakasleei entzutea eta eskolako ekintzetan guztiz parte hartzea.

Zure jarrera ez bada egokia, Ikasketa Zuzendariak zurekin hitz egingo du. Honen ondoren ez baduzu jarrera hobetzen, zure gurasoei deituko diegu.

7 Zure irakaslea eta eskolak

Zure irakaslea ez dagoenean, eskola beste irakasle batek emango du. Hala eta guztiz ere, akademiarekin harremanetan jarri ezin duelako edo, irakaslea berandu iristea edo ez agertzea suertatu daiteke. Klasea hasi eta bost minututan irakaslea ez bada agertzen, esaiozu, mesedez, idazkariren bati edo Ikasketa Zuzendariari.

8 Norekin jarri harremanetan

Zure klaseari buruzko gairen batez edo orokorrean zure ingeleseko ikastaroari buruz hitz egin nahi baduzu, zentroko Ikasketa Zuzendaria atsegin handiz jarriko da harremanetan zurekin. Beheko taulan aurkituko dituzu beraien izenak (Tel: 902 012 912):

Ikastetxea	Ikasketa Zuzendaria
Urbietia, 14	Jim Rudy
Buen Pastor, 8 (arratsaldez)	Dave Green
Moraza, 5	Della Mitchener
Amara (Eustasio Amilibia)	Michele Bogaard
Antiguo (Benta Berri)	Brigit Clunies
Gros (Secundino Esnaola)	Julie Simmons
IRUN (Jose Ramon Aguirretxe)	Phil Hughes



Younger Learner Guide (Aged 6-12)

